



## EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL ETA GARDE COMISIÓN DE CONTROL Y TRANSPARENCIA DE LA POLICÍA DEL PAÍS VASCO

### KONTROL ETA GARDENTASUN BATZORDEAREN TXOSTENA 1-2022 ESPEDIENTEA INFORME DE LA COMISIÓN DE CONTROL Y TRANSPARENCIA. EXPEDIENTE 1- 2022

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 8a

#### 1. Kasuaren inguruabarrak

. 2022.02.16. Gizarte-hedabide batzuek informatu dute pertsonen osotasun moralaren aurkako ustezko delitu bategatik erantzukizunak argitzeko, jurisdikzio penalean, jarduketak ireki direla; Bilboko San Frantzisko auzoan Mariaren Bihotza Plazan, 2021eko ekainean, Ertzaintzako unitate polizial batek egindako bi pertsonaren atxilotetarekin lotuta.

. 2022.02.16. Eusko Jaurlaritzaren Segurtasuneko sailburuaren prentsa-bulegoak jakinarazpen baten bidez adierazi du informazioa Barne Arazoetarako Zerbitzura bidali dela barruko ikerketa ireki dezan, eta ikerketa judizialean azaldutako gertakariak argitzen laguntzeko prest dagoela.

. 2022.02.18. Eusko Jaurlaritzaren Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuak azaldutako gertakariari buruzko jakinarazpena bidali du Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordera (EAEPKGB). Horrekin batera, Bilboko 7. zk.ko Instrukzio Epaitegiak 2022ko urtarrilaren 10ean emandako autoaren kopia ere bidali du, [REDACTED] aurretiazko eginbideei buruzkoa. Batzordeak esku-har dezala eskatu du Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen 17b artikuluan eta horren ondorengoetan ezarritako ondorioetarako.

Ebazpen judizialaren hirugarren zuzenbide oinarrian hauxe jasotzen da:

HIRUGARRENA. Aurrekoa egindako eginbide guztien ondorio da eta eginbide horietatik ezin da ondorioztatu kriminalitate-zantzurik dagoenik eta inputazioa justifikatzeko atestatu polizialean jasota dagoen kontakizunari buruzko zalantza nahiko daude. Izan ere, funtsean, atestatuan inputazioa

Vitoria-Gasteiz, 8 de junio de 2022

#### 1. Circunstancias del caso

. 16.02.2022. Diversos medios de comunicación social informan sobre la apertura de actuaciones en la jurisdicción penal para el esclarecimiento de responsabilidades por un presunto delito contra la integridad moral de las personas, en relación con el desarrollo de la detención de dos personas por una unidad policial de la Ertzaintza, ocurrida en el mes de junio de 2021 en la plaza Corazón de María del barrio de San Francisco de Bilbao.

. 16.02.2022. La Oficina de prensa del Consejero de Seguridad del Gobierno Vasco (GV) emite un comunicado por el que da cuenta del traslado de la información al Servicio de Asuntos Internos para la apertura de una investigación y se pone a disposición de la investigación judicial para el esclarecimiento de los hechos relatados.

. 18.02.2022. El Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad del GV dirige comunicación sobre los hechos referidos a la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco (CCTPPV). Acompaña copia del Auto dictado con fecha de 10 de enero de 2022 por el Juzgado de Instrucción nº 7 de Bilbao, recaído en las Diligencias previas [REDACTED]. Se solicita la intervención de la Comisión, a los efectos previstos en el art. 17b y ss. de la Ley de Policía del País Vasco.

En el Fundamento de Derecho Tercero de la resolución judicial se recoge:

“TERCERO. Lo anterior resulta del conjunto de diligencias practicadas, de las que no cabe concluir la concurrencia indicios de criminalidad, existiendo dudas suficientes sobre el relato contenido en el atestado policial para justificar la



sustatzen duen kontakizunaren eta eginbideetan sartutako grabazioetan ikusitakoaren artean aldea dago.

Horiek horrela, agertzeko eginbidean jasotako gertakariei buruzko kontakizunak, atentatu-delitu bat (polizialki inputatua izan zena) identifikatzeko funtsezko gertakariak deskribatzen dituzte, hauxe baino ez du adierazten: gizonak ostikadaka eta ukabilkadaka hasi ziren agenteen kontra eta agenteek kolpeei iskin egin behar izan zieten. Hori gertatu zen – horrela adierazten da- neskegandik urrutiratzen ari ziren bitartean, agenteek eskatuta, eta eginbidearen idazleak neskek iraintzeagatik erantzuki egin zirenean.

Hala ere, bideozaintzako sistema publikoko grabazioak ikusita hainbat ondorio atera daitezke. Jarduketaren hasieran ikusten da salatutako bi pertsonak, atxilotuak izan zirenak, neska-talde baten ondoan zeudela eta taldearen keinuak bateragarriak dira atestatuan dagoen bertsioarekin, hau da, irainak jasotzen ari zirela gero atxilotuak izan ziren horiengandik. Dena den, nesken lekuko-deklaraziorik ez dago; eta beraz, ez da jakiten zein izan zen esku-hartze poliziala eragin zuen arazo zehatza. Nesketako batek egoitza judizialean egindako deklarazioan esan zuena ere ez da oso fidagarria, konturen batean irudietan ikusten denaren kontrakoa adierazi baitzuen.

Edonola ere, ikusten da lau agentek, antza, irudietan eskuinaldean aparkatuta ikusten den furgonetan daudenean, nesken eta salatutako arteko liskarrean interesa agertzen dutela, kasu horretan nesken erreklamazioei kasu egiteko. Hasiera batean lau agente hurbiltzen dira eta gero beste bi ibilgailu polizial batean. Nabarmendu behar da, hasieran aipatu den aldeari dagokionean, agenteak heldu bezain laster, lagundu edo ezer eskatu baino gehiago, salatutakoak beste leku batera mugitzea eragiten dutela, irudietan zuhaitz baten atzean dagoelako ikusten ez den leku batera, eta leku hori da Plazan kamerak jasotzen ez duen puntu bakarra, erdialdeko goiko puntua. Izan ere, beste edozein

imputación. Sustancialmente esto se fundamenta en el contraste entre el relato que sustenta imputación en el atestado, y lo observado en las grabaciones incorporadas a las actuaciones.

“Así, el relato de hechos plasmado en diligencia de comparecencia se limita a indicar, en cuanto a la descripción de los hechos nucleares, identificativos de un delito de atentado (que fue policialmente imputado) que los varones “comenzaron a dar patadas y puñetazos a los agentes teniendo estos que esquivar los golpes”. Esto ocurrió -se indica- cuando se estaban alejando de las chicas, a instancia de los agentes, y el redactor de la diligencia les recrimina que insulten a las chicas.

“Sin embargo la visualización de las grabaciones del sistema público de videovigilancia permite llegar a varias conclusiones. En el inicio de la actuación se observa que las dos personas denunciadas, que fueron detenidas, están junto a un grupo de chicas, siendo compatible los gestos del conjunto con la versión manifestada en el atestado referente a que estaban siendo insultadas o increpadas por los después detenidos. No obstante, no hay declaración testifical de las chicas, por lo que no se conoce directamente el problema que suscitó la intervención policial. Tampoco es demasiado fiable lo que una de ellas dijo en declaración prestada en sede judicial, en tanto que en algún extremo pudo contradecir lo que ofrecen las imágenes.

“En cualquier caso, se observa que cuatro agentes, al parecer destinados en la furgoneta que aparece aparcada a la derecha en las imágenes, se interesan por el enfrentamiento entre chicas y denunciados, en su caso por atender las reclamaciones de aquéllas. Se acercan cuatro agentes en primera instancia, y luego otros dos que se acercan en un vehículo policial. Lo relevante a efectos del contraste inicialmente apuntado, es que en cuanto llegan los agentes, más que acompañar o requerir, provocan que los denunciados se desplacen hacia un lugar que en las imágenes aparece oculto detrás de un árbol, punto único en el centro



lekutara mugitu balira kamerek jaso zezaketen salatutakoei egozten zaiena. Ikusten da agenteetako batek hasieratik bultzatzen duela horietako bat eta ematen du salatu hori agenteari ahoz zuzentzen zaiola. Ematen du beste salatutakoak agenteari hura gidatzen uzten diola, hari bultzatu beharrik gabe. Zuhaitz atzean gertatzen dena ez da ikusten, sei agenteak bi salatutakoen gainean daudela baino ez da ikusten. Hasieran ez du ematen algara edo liskarrik dagoenik. Une horretara arte ez da ikusten agenteak neskengana salatutakoek egin dutenari buruz galdetzera hurbildu direnik, hau da, salatutakoek neskei ahoz egin dietenari buruz galdetzera, horrek agenteen esku-hartzea justifika lezakeelako. Izan ere, atestatuak jarduketaren – beste leku batera mugiaraztea- arrazoiari buruz hauxe baino ez du jasotzen: iraintzen ari zitzaikeela eta agenteak (eginbidearen idazlea) jarrera horregatik erantzuki egin ziela.

Atestatuko deskribapen laburrari helduta, une horretara arte, hau da, sei agentez (laster helduko da zazpigarrena) inguratuta dauden unera arte, badirudi plazako egitura edo banku batean eserita zeudela eta une horretan hasi omen ziren ostikadak eta ukabilkadak ematen, agente bat ere harrapatu gabe. Espero izatekoa litzateke ekintza horiek gertatu balira irudietan mugimendu edo konbultsioren bat antzematea, ukabilkadak eta ostikadak (bi salatutakoen ekintzak) ekiditeko asmoz eragindakoak gutxienez. Edonola ere, ekintza horien ondorioz –kontakizun polizialaren arabera- agente jarduleek “persona horiek menderatzeko indar proportzionala erabili” behar izan zuten. Azter dezagun indar proportzional hori.

Bi segundoz ez da ezer ikusten, harik eta eszena berriz ere agertzen den arte, salatuetako bat, bi agentek heltzen diotela, irudiaren eskuin aldera mugitzen delako. Hortik aurrera ikusten da, salatuetako bat helduta dagoela, agente batek ukabilkada bat ematen diola aurpegian distantzia laburrean (zuzeneko bat argot pugilistikoan). Ematen du (besoa luzatuta egiten duen keinuagatik) erasotuak erantzuki egiten diola eta, salatuak besoetatik helduta jarraitzen duela,

superior que la cámara no recoge del conjunto de la Plaza. De hecho, cualquier otro lugar hubiera permitido que las cámaras recogieran lo que se imputa a los denunciados. Se aprecia que uno de los agentes, desde el principio, empuja a uno de ellos, que parece dirigirse verbalmente al agente. El otro denunciado parece que atiende la conducción sin necesidad de ser empujado. Lo que ocurre tras el árbol no se aprecia, salvo que los seis agentes están sobre los dos denunciados. En el momento inicial no parece que haya alboroto o forcejeo alguno. Hasta este momento no se ve que ninguno de los agentes se haya dirigido a las chicas para preguntar sobre lo que los denunciados habrían hecho, se entiende verbalmente sobre las chicas, en su caso, y que podría justificar la intervención con ellos. De hecho, el atestado, por toda motivación de actuación -desplazamiento hacia otro lugar- únicamente dice que les estaban insultando y que el agente (redactor de la diligencia) les recriminó esa actitud.

“Hasta este momento, si enlazamos con la parca descripción del atestado, es en el momento en que están rodeados de seis agentes (pronto se incorpora un séptimo), al parecer sentados en una estructura o banco de la plaza, cuando habrían comenzado a dar puñetazos o patadas, que no habrían alcanzado a agente alguno. Sería de prever que, si estas acciones si hubiera producido, se percibiría en las imágenes algún tipo de movimiento o convulsión, siquiera como efecto de evitar esos puñetazos y patadas (varios actos de dos denunciados). En cualquier caso, estas acciones -según el relato policial- dieron lugar a que los agentes actuantes tuvieron que "utilizar la fuerza proporcional para reducir a estas personas". Veamos esta fuerza proporcional.

“Transcurren unos segundos en que nada se aprecia, hasta que la escena reaparece porque uno de los denunciados, agarrado por agentes, se desplaza hacia el lado derecho de la imagen. A partir de este momento se aprecia que, estando sujeto uno de los denunciados, un agente de propina un puñetazo en el rostro a escasa distancia (un directo, en argot pugilístico). Parece



agente berak bi ostikada ematen dizkiola, bigarren ostikadak badirudi gorputz-enborrean jotzen duela eta lurrera erorarazten duela; eta erortzen den bitartean beste ostikada bat jasotzen du. Lurrean dagoela heltzen diote, eta hori egiteko edo egiten saiatzeko hanketan oinkadaren bat ematen diote (badirudi oinkada batek belauna aldean jotzen duela). Azkenik, eskuburdinak jarrita dituela, antza buelta eman ez dezan eta lurraren kontra gelditu egon dadin, agentearen bota jasotzen du aurpegian. Salatutakoa lurrean dagoela igarotzen diren une horietan, harekin dauden bi agenteak burua altxa ez dezan saiatzen direla ematen du. Interpreta lezake saiatzen direla beste atxilotutakoarekin egiten ari den jarduketa ikusi ez dezan, beste atxilotua metro gutxira egongo zen eta (zuhaitzak ez du irudia ikusten uzten), hiru edo lau metrora Testuinguru horretan, agenteetako batek, bere gainean makurtuta dagoenak, aurpegian hiru (edo lau) ukabilkada ematen dizkio.

Hori guztia ez dago atestatuan deskribatuta eta zaila da hori jarduketan parte hartu zuten beste agenteetako batek ere guztiz edo zati batean ikusi ez izana. Argi dago ekintza horiek ezin direla askotan errepikatzen den indarraren erabilera proportzionalaren azpian babestu; bereziki, pertsona bat lurrean etzanda eta eskuburdinak jarrita dagoenean, inolako kalterik eragiteko gaitasunik gabe. Proportzionaltasuna ezin da ulertu babesgarri gisa, eskuburdinak jarrita dituenari aurpegia lurrean jarrarazteko (alderdi higienikoa alde batera utzita), edo aurpegian zola baten kontaktua, ostikadak eta ukabilkadak jasoarazteko.

Ondorioz, aztertutako informazioaren argitan, zalantzarikoa da eta ez dago behar bezain ondo justifikatuta bi salatutakoak agenteen aurka ostikadaka eta ukabilkadaka ibili zirenik. Behintzat, ez dator bat kontatutakoa – ukabilkadaka eta ostikadaka hastea, neskak iraintzeagatik agenteak erantzuki egiten dienean – irudietan ikusten denarekin. Inputatutako egintzak – kontakizunaren arabera- salatuak eramaten dituzten lekura eramanez aurretik (irudietan, zuhaitzaren atzean) gertatu beharko ziren.

(gesto con brazo extendido) que el agredido le recrimina, y siguiendo estando sujeto por los brazos, el mismo agente de lanza dos patadas, la segunda parece que alcanzan la zona del torso y le hace caer al suelo, recibiendo otra patada mientras cae. Es sujetado en el suelo, lo que en parte es hecho o se intenta hacer mediante algún pisotón en las piernas (parece que uno le alcanza la zona de la rodilla). Finalmente, estando esposado, al parecer a fin de evitar que se voltee y con la finalidad de que permanezca quieto contra el suelo, recibe en su cara la bota de un agente. En estos instantes que transcurren con el denunciado en el suelo, los dos agentes que están con él parece que intentan que no levante la cabeza. Podría interpretarse que evitan que cuida observar la actuación con el otro detenido, que debe encontrarse (oculta la imagen por el árbol) a escasos tres o cuatro metros. En este contexto es cuando uno de los agentes, que está agachado sobre él, le propina tres (o cuatro) puñetazos en el rostro.

“Nada de todo esto es descrito en el atestado, siendo difícil no haberse sido apreciado, en todo o en parte, por ninguno de los otros agentes que intervinieron en la actuación. Evidentemente dichos actos no pueden ser amparados por la, en ocasiones recurrente, alusión al uso proporcional de la fuerza; en particular cuando una persona está echada suelo esposada, sin que tenga capacidad alguna o mínima al menos de causar perjuicio alguno. La proporcionalidad no puede ser entendida como paraguas para obligar a un esposado a pegar la cara al suelo (cuestiones higiénicas aparte), recibir el contacto de una suela en el rostro, patadas, puñetazos.

“En conclusión, resulta dudoso y no suficientemente justificado a la vista de la información analizada, que los dos denunciados hubieran lanzado puñetazos y patadas a los agentes. Al menos no encaja lo relatado – lanzamiento de puñetazos y patadas ante recriminación por el agente cuando insultan a las chicas- con lo visto en las imágenes. Esos actos imputados debían haberse producido –según el



. 2022.02.25. Aurreko jakinarazpena jaso ondoren, EAEPKGBek erabaki du enkargua onartzea eta Auto horretan jasota dauden jarduketak aztertzeari ekitea. Halaber, erabaki du Bilboko 7. zk.ko Instrukzio Epaitegiari jakinaraztea Batzordeari eskatutako azterketaren helburua ez dela ikertzea, ezta diziplina- edo zigor-erantzukizunak argitzea. Erabakiaren egiaztagiria 2022ko maiatzaren 26an sartu zen Bilboko 10. zk.ko Instrukzio Epaitegian, horretan ari baita kausa instruitzen, [REDACTED] aurretiazko eginbideak.

## 2. Egindako jarduketak

. 2022.02.25. Batzordeak erabaki du Vitoria-Gasteizko Herritarren Segurtasunaren Sailera jotzea, udalerrri horretan udaltzaingoko jarduketetan kamera subjektiboak erabiltzeko kontrol- eta erabilera-arauei eta instrukzioei buruzko dokumentazioa bidal dezala eskatzeko.

. 2022.03.02. Espedientean gehitu da Segurtasun Sailari atxikitako Ekinbide- Segurtasun sistema hobetzeko herritarren ekimenen bulegoaren 2020ko jarduera-txostena. Ekinbideren 2020ko memorian "tratu tipologia" atalari buruzko zehaztapenak eskatu dira.

. 2022.03.04. Lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuaren Kabineteko zuzendariari idazki bat bidali zaio leku publikoetan egiten diren polizia-jarduketetan gorputz-kamerak erabiltzeari eta gaitzen duen araudiari buruzko informazioa eskatzeko.

. 2022.03.12. Segurtasuneko sailburuaren Kabineteko Zuzendaritzaren dokumentazioa jaso da, honi buruzkoa: Ertzaintzan kamera indibidualak erabiltzea, bidezaintza polizialaren kudeaketa eta Ertzaintzako unitateetan kamera indibidualen proiektu pilotuaren ondorioen aurkezpena.

relato- antes de ser conducidos al lugar en que se les coloca (en las imágenes, detrás del árbol)."

. 25.02.2022. Recibida la comunicación anterior, la CCTPPV acuerda aceptar el encargo y proceder al estudio sobre las actuaciones reflejadas en el citado Auto. Así mismo, se acuerda poner en conocimiento del Juzgado de Instrucción nº 7 de Bilbao que el estudio encomendado a la Comisión no tiene por objeto la investigación ni la depuración de responsabilidades disciplinarias o penales. La certificación del acuerdo tiene entrada con fecha de 26 de mayo de 2022 en el Juzgado de Instrucción nº 10 de Bilbao en el que se instruye la causa, Diligencias Previas [REDACTED].

## 2. Actuaciones realizadas

. 25.02.2022. La Comisión acuerda dirigirse a la dirección del Departamento de Seguridad Ciudadana del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz interesando la remisión de documentación referida a instrucciones, normas de uso y control sobre el empleo de cámaras subjetivas en las actuaciones de la policía local en dicho municipio.

. 02.03.2022. Se aporta al expediente el Informe de actividad 2020 de la Oficina de iniciativas ciudadanas para la mejora del sistema de seguridad pública-Ekinbide, adscrita al Departamento de Seguridad. Se solicitan precisiones sobre el apartado "Tipología de trato" en la Memoria Ekinbide 2020.

. 04.03.2022. Se dirige comunicación a la Directora de Gabinete del Vicelehendakari Primero y Consejero de Seguridad interesando información sobre el empleo de cámaras de cuerpo durante las actuaciones policiales en espacios públicos y sobre la normativa habilitante.

. 12.03.2022. Se recibe la documentación remitida por la Dirección de Gabinete del Consejero de Seguridad sobre uso de cámaras individuales en la Ertzaintza, gestión de la videovigilancia policial y presentación de conclusiones del Proyecto piloto de Cámaras individuales en unidades de la Ertzaintza.



. 2022.03.16. Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarren Seguratasunaren Saileko Zuzendaritza Nagusiko informazioa jaso da, hauei buruzkoa: bideokamera mugikorrek erabiltzeko prozedurak, irudien grabaketari buruzko txostena eta irudien grabaketa-erregistroa.

. 2022.03.30. EAEPKGBek erabaki du Seguratasun Sailari ikertzen ari den jarduketa polizialaren barruko ikerketari buruzko informazio osagarria eskatzea.

. 2022.04.06. Ertzaintzaren zuzendariaren komunikazioa jaso da Seguratasun Saileko Barne Arazoetarako Burutzak egindako jarduketei buruz informatzeko.

. 2022.04.11. Espedientean Arartekoak jarduketa polizialei buruz egindako gomendio batzuen dokumentazioa gehitu da, baita 7/2011 Gomendio orokorra ere, honi buruzkoa: "Berme-sistema jarduketa eta praktika polizialean".

. 2022.05.04. Ertzaintzaren zuzendariak 2022ko apirilaren 6an bidalitako komunikazioan jasotzen da ikerketa etenda dagoela harik eta prozeduraren behin betiko epaia eman arte, eta Batzordeak hori buruzko erabaki bat hartu du. EAEPKGBek Ertzaintzako Zuzendaritzari eskatu dio zehazteko [REDACTED] Ikerlana ireki zenetik hori eteteko erabakia hartu arte Poliziaren Legearen 138.5 artikuluan aurreikusitako ikerketa-jarduketetako bat egin den. Erantzuna baiezkoa bada, egindako jarduketak bidaltzeko eskatu da. Era berean, txostenaren xede diren egintzekin lotutako atestatu polizialaren kopia sinplea bidaltzeko ere eskatu da.

. 2022.05.19. Ertzaintzaren Zuzendaritzak hauxe azaldu du:

Barne Arazoetarako Burutzak, Bilboko 10. zk.ko Instrukzio Epaitegiak daraman kausa judicialaren jarraipena egiteaz aparte, ez du bestelako

. 16.03.2022. Se recibe la documentación remitida por la Dirección General del Departamento de Seguridad Ciudadana del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz referida a procedimientos de utilización de videocámaras móviles, Informe de grabación de imágenes y Registro de grabación de imágenes.

. 30.03.2022. La CCTPPV adopta acuerdo interesando información complementaria del Departamento de Seguridad sobre la realización de investigación interna en relación con la actuación policial investigada

. 06.04.2022. Se recibe comunicación de la Directora de la Ertzaintza informando sobre actuaciones llevadas a cabo por la Jefatura de Asuntos Internos del Departamento de Seguridad.

. 11.04.2022. Se aporta al expediente la documentación referida a diversas recomendaciones formuladas por el Ararteko sobre actuaciones policiales, así como la Recomendación general 7/2011, sobre "El sistema de garantías en las actuaciones y prácticas policiales".

. 04.05.2022. En la Comisión se adopta acuerdo en relación con la comunicación remitida por la Directora de la Ertzaintza de fecha 6 de abril de 2022, en la que se indica que "la investigación queda suspendida hasta que recaiga sentencia definitiva del procedimiento". La CCTPPV interesa de la Dirección de la Ertzaintza que se precise si, entre el acuerdo de apertura del Ikerlan [REDACTED] y el acuerdo de suspensión del mismo, se ha llevado a cabo alguna actuación investigadora de las previstas en el artículo 138.5 de la Ley de Policía. En caso afirmativo, se interesa la remisión de las actuaciones practicadas. Igualmente, se solicita la remisión de copia simple del atestado policial formulado en relación con los hechos objeto del informe.

. 19.05.2022. Por la Dirección de la Ertzaintza se informa que:

"(...) la Jefatura de Asuntos Internos no ha practicado actuaciones de investigación más allá del seguimiento de la causa judicial que está



ikerketa-jarduketarik egin, eta prozedura penal horretan ebazpen judicial irmoa emateko edo epaileak egin beharreko kudeaketak egiteko ofizioa bidaltzeko zain dago.

Halaber, informatu behar da Bilboko 10. zk. Instrukzio Epaitegian kausa judiciala irekitzea eragin zuten egintzen berri izan bezain laster, egintzetan inplikaturako bi agenteek ez dutela ikerketapean dagoen eremutik patruilarik egiten, kautelazko neurri gisa, eta gaur egun oraindik indarrean dagoela neurri hori.

. 2022.05.26 Batzordeko buruak eta bi bokalek [REDACTED] atestatuaren kopia ikusi dute Erandioko (Bizkaia) Polizia Zentroan. Kopia horretan ikusten da agente bakar batek atestatuaren instruktorearen aurrean egindako agerraldian, 2021eko ekainaren 13ko 03:04an, hauxe agertzen dela:

AGENTEAREN AGERRALDIAREN AKTA. 2021eko ekainaren 13ko 02:40ak aldera, agente lehena, agerraldi honetan dagoena, Bilbon (BIZKAIA) Herritarren Babeseko lanak egiten zebilen oinez, erregelamenduzko uniformea jantzita eta xxxx IPZ daukan agentearekin eta beste batzuekin.

Agente lehen horrek adierazten du Bilboko Mariaren Bihotza Plazan zegoela eta halako batean bi /2/ neska entzun zituztela "POLIZIA, POLIZIA" oihukatzen.

Agenteek biratu eta ikusi zuten arraza arabiarreko bi /2/ gazte indar egiten zebiltzala oihuka zebiltzan bi /2/ nesken aurka.

Horregatik, agenteak leku horretara hurbildu eta pertsona horiek banantzen hasi ziren.

Agertu den agenteak adierazi zien bi /2/ gizonei urrutiratzeko eta laguntzen ari zitzaizkienean gizon horiek neskak iraintzen hasi ziren honela: GORDAS, HIJAS DE PUTA. Hori ikusita, agenteak jokabide horregatik erantzuki egin zien, eta, orduan, bi /2/ gizon horiek agentei ostikadak eta

llevando a cabo el juzgado de Instrucción nº 10 de Bilbao, quedando a la espera de que recaiga una resolución judicial firme en el citado procedimiento penal o que su señoría oficie cualquier gestión a realizar.

De igual manera, informar que desde que se tuvo conocimiento de los hechos que motivaron la incoación de la causa judicial en el Juzgado de Instrucción nº 10 de Bilbao, los dos agentes implicados en los hechos no realizan patrulla por la zona objeto de investigación, medida cautelar que actualmente permanece en vigor (...).

. 26.05.2022. El presidente y dos vocales de la Comisión acceden a la copia del atestado [REDACTED] en las dependencias del Centro Policial de Erandio-Bizkaia. En dicha copia se observa que, en la comparecencia que efectúa un único Agente ante el Instructor del atestado, el día 13 de junio de 2021 a las 03:04 horas, se consigna:

"ACTA DE COMPARECENCIA DE AGENTE. Sobre las 02:40 horas del día 13 de junio de 2021, el agente Primero compareciente se encontraba realizando a pie, labores de Protección Ciudadana por la localidad de Bilbao (BIZKAIA), vistiendo uniforme reglamentario y en compañía del agente con NIP xxxx y otros.

El agente Primero compareciente manifiesta que se encontraba en la Plaza Corazón de María de la localidad de Bilbao y en un momento dado escucharon como dos /2/ chicas gritaban "POLICÍA, POLICÍA".

"Al girarse, los agentes observaron como dos /2/ jóvenes de raza árabe se encontraban forcejeando con las dos /2/ chicas que estaban gritando.

Por este motivo, los agentes se acercaron hasta este lugar y procedieron a separar a las personas.

"El agente compareciente indicó a los dos /2/ varones que se alejaran y cuando les estaba acompañando estos comenzaron a insultar a las chicas diciéndoles "GORDAS, HIJAS DE PUTA". Ante esto, el agente les recriminó su actitud,



ukabilkadak ematen hasi zitzaizkien eta agenteek kolpeei itzuri egin behar izan zieten. Horregatik, agente jarduleek gizon horiek menderatzeko indar proportzionala erabili behar izan zuten.

Horren aurrean, agertu den agente lehenak jakinarazi zien bi /2/ gizon horiei atxilotuko zituztela Agenteen aurkako ustezko atentatu-delitu bategatik eta legez dagozkien eskubideak irakurri zizkien. Azaleko gorputz-miaketa egitean, xxxx IPZ daukan agenteak horietako bati Marokoko identitate-txartel bat aurkitu zion, honen izenean: xxx. ...

### **3. Jarduketa poliziala ebaluatzeko alderdi garrantzitsuak**

EAEPKGBren ustez, Bilboko 7 zk.ko Instrukzio Epaitegiaren 2022/01/10eko Autoan (horren edukia hedabideek zabaldu zuten) deskribatzen den polizia-jarduketak, bere ezaugarriengatik, eragin kaltegarria izan dezake herritarrek polizia-jarduketaren integritatean eta inpartzialtasunean izan dezaketean konfiantzan. Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen (EAEPL) 17. artikuluan ezarritakoaren arabera, hori aztertzea erabaki du.

Ikerketa penal bat irekita dagoenez, EAEPKGBek ikerketa hori oztopatzen ez duten alderdiak baino ez ditu ikertuko eta ez ditu diziplinazko edo zigor arloko erantzukizunak eragin litzaketan banakako jokabideak aztertuko, eta hori agintaritzaren judizial eskudunari jakinarazi zaio (EAEPL 19.4 art.).

Atxilotarekin lotutako praktika polizialak hobetzeko proposamenak egin ahal izateko, egokia iruditu zaigu Ertzaintzako agenteen ustezko jarduketa irregularrei aurre egiteko prebentzio- detekzio- eta erantzun-neurriak kasu zehatz honetan nola funtzionatu duten aztertzea.

Batzorde honek badaki kasu bakar batean oinarrituta ezin direla ondorioak orokortu, baina egia da antzematen diren gabeziek edo akatsek

momento en el cual estos dos /2/ varones comenzaron a dar patadas y puñetazos a los agentes teniendo estos que esquivar los golpes. Por este motivo, los agentes actuantes tuvieron que utilizar la fuerza proporcional para reducir a estas personas.

“Ante estos hechos, el agente Primero compareciente procedió a informar a estos dos /2/ varones que iban a ser detenidos por un P. D. de Atentado a Agentes, leyéndoles los derechos que por Ley les asiste. Al realizar el registro corporal superficial el Agente con NIP xxxx localizó a uno de ellos una carta de identidad marroquí a nombre de xxx. ...”

### **3. Cuestiones relevantes a efectos de la evaluación de la actuación policial**

La CCTPPV considera que la intervención policial que se describe en el Auto de fecha 10/01/2022, dictado por el Juzgado de Instrucción nº 7 de Bilbao, cuyo contenido ha sido difundido por los medios de comunicación, presenta características que pueden afectar negativamente a la confianza de la ciudadanía en la imparcialidad e integridad de la actuación policial, por lo que, en virtud de lo dispuesto en el art. 17 de la Ley de Policía del País Vasco (LPPV), ha decidido proceder a su estudio.

Dado que existe una investigación penal en curso, la CCTPPV centrará su análisis en aspectos que no interfieran en aquélla y se abstendrá de examinar las conductas individuales que pudieran dar lugar a responsabilidades penales o disciplinarias, lo que se ha comunicado a la autoridad judicial competente (art. 19.4 LPPV).

Con la finalidad de poder realizar propuestas de mejora sobre las prácticas policiales relacionadas con la detención, hemos considerado oportuno analizar cómo han funcionado, en este caso concreto, las medidas de prevención, detección y respuesta frente a posibles actuaciones irregulares de los agentes de la Ertzaintza.

Esta Comisión es consciente de que no se pueden generalizar las conclusiones a partir del estudio de un solo caso, pero también es cierto





balio dezaketela polizia-jarduketaren gaineko kontrolen eraginkortasuna handitzeari begirako iradokizunak edo gomendioak egiteko.

Prebentzioari dagokionean, garrantzizkoa da atxiloketan esku-hartu zuen agente-taldeak berak gauzatutako kontrola aztertzea (zazpi agente ere izan ziren, Auto judicialaren arabera); Jarduketaren alderdi zehatz eta deigarri batzuei begiratuta, badirudi kontrol horrek ez zuela ondo funtzionatu. Adibidez, zazpi agente zeuden eta, hala ere, horrek ez zuen eragotzi gero atxilotuak izan ziren bi pertsona horiek eremu horretako bideozaintzako kamera finkoen filmazio-eremutik kanpoko eremu batera eramatea.

Izan litezkeen jarduketa irregularrak antzemateko neurriei dagokienean, jakin nahi da agintaritzaren agenteen aurkako atentatu- edo jarkitze-delituen ondoriozko atxiloketetan eta, bereziki, indarra erabili den horietan, atestatuta egiteko moduari buruzko protokolorik edo instrukziorik dagoen. Kasu honetan, unitate polizialeko kideek indarra erabiltzearen ondorioz gertatutako indarkeriazko ekintzak ez dira atestatuan agertzen eta hori deigarria da. Agente esku-hartzaileetako batek ere ez du desadostasunik adierazi atestatuan indarkeriazko ekintza horiek jasota ez geratzeagatik, eta hori ere deigarria da. Badirudi horrek guztiak adierazten duela aztergai den jarduketa polizialaren kontrol objektiboa eragoztera bideratutako jokabide-patroi bat dagoela.

Ustezko irregulartasunak egon direlako susmoen edo zantzuen aurrean, Ertzaintzak eman beharreko erantzunari dagokionez, barruko ikerketa bat hasteko legezko betebeharra dago (EAEPL 142.2 art.) Dirudienez, kasu honetan erakunde polizialak ez du jakin jarduketa okerra egon den, 2022/01/10eko auto judicial hori zabaldu zen arte. Hala ere, data horren ondoren ez da gertatutakoari buruz ikerketa-eginbiderik egin, ezta jarduketa polizialaren legezkontasunaren gaineko kontrolek – itxuraz- huts egitea eragin zuten kausei buruz ere.

que las deficiencias o errores que se detecten pueden servir de base para realizar sugerencias o recomendaciones dirigidas a incrementar la eficacia de los controles sobre la actividad policial.

En cuanto a la prevención, interesa examinar el control ejercido por el propio grupo de agentes que intervino en la detención (hasta siete, según el Auto judicial); control que parece que no funcionó respecto a determinadas circunstancias de la actuación que resultan llamativas. Por ejemplo, la presencia de ese número de agentes no impidió que las dos personas que luego acabaron detenidas fuesen conducidas a un lugar que queda fuera del área de filmación de las cámaras fijas de videovigilancia existentes en la zona.

Respecto a las medidas para detectar posibles actuaciones irregulares, interesa conocer si, en relación con las detenciones por delitos de atentado o resistencia a agentes de la autoridad y, en especial, en aquellas en las que se ha utilizado la fuerza, existe algún protocolo o instrucción sobre el modo de elaborar el atestado. En el caso que nos ocupa, llama la atención la falta de reflejo en el atestado de los hechos violentos ocurridos, derivados del empleo de la fuerza por parte de los miembros de la unidad policial. También resulta llamativo que ninguno de los agentes intervinientes manifestara discrepancias sobre la ausencia en la consignación en el atestado de los citados hechos violentos. Todo ello parece describir un patrón de conducta dirigido a impedir el control objetivo sobre la actuación policial considerada.

Por lo que se refiere a la respuesta de la Ertzaintza frente a la sospecha o indicios de posibles irregularidades, existe la obligación legal de iniciar una investigación interna (art. 142.2 LPPV). Al parecer, en este caso la institución policial no ha tenido conocimiento de la eventual existencia de una actuación incorrecta hasta que se difundió el citado Auto judicial de 10/01/2022. Sin embargo, después de esa fecha no se ha realizado ninguna diligencia de investigación sobre lo sucedido, ni tampoco sobre las causas



#### 4. Horren azpian zer arazo dauden

Atal honen garapenean, hurrengo hiru alderdi hauei helduko diegu: izan litezkeen jarduketa polizial irregularrak prebenitzeko, antzemateko eta horren aurrean erreakzionatzeko neurriak.

1- Prebentzio-mekanismo eraginkorrenak agenteen konbikzioak eta baloreak eta haien autokontrola tentsio-egoeren aurrean izaten dira, baita kideen taldeak berak egiten duen kontrola ere. Dirudenez, mekanismo horietako batek ere ez zuen esku artean daukagun kasuan funtzionatu, edo behitzat atestatuan ez da horren zantzurik agertu.

Beste prebentzio tresna bat izan daiteke indarra erabili behar den jarduketetako dotazio polizialek "gorputzeko kamera subjektiboak" erabiltzea. Segurtasun Sailak Bilbon, Irunen eta Vitoria-Gasteizen eta Vitoria-Gasteizko Udalak proba pilotuak egin dituzte eta badirudi proba horietan ikusi dela pertsonak leku publikoetan atxilotzeko jarduketetan baliabide tekniko hori modu orokorrean erabiltzen bada, polizia-jarduketa akreditatzean objektibitatearen bermeak handitzen direla; eta hortaz polizia jokabide ezegokiak prebenitzeko neurri eraginkorra da.

2- Izan litezkeen jokabide irregularrak detektatzeko tresnei dagokienean, aztergai dugun atxilotetaren ondorioz egindako atestatua berrikusi ondoren, ondorioztatu behar dugu instrukzioa eskasa izan dela. Agente Lehenari baino ez zaio deklarazioa hartu eta atxilotetan indarra erabili behar izan dela baieztatzen duen arren, ez zaio bestelako zehaztasunik eskatu, ez atxilotuen ustezko jokabide erasokorrari buruz (nork egin zuen zer, noiz, non...), ezta horri aurre egiteko erabilitako indarrari buruz ere. Ez da zehaztu zenbat ertzainek erabili zuten indarra, ez nork erabili zuen, ezta atxilotuei zein lesio - egon balitz- eragin zieten ere. Ezin izan dugu hori

por las que -aparentemente- fallaron los controles sobre la legalidad de la actuación policial.

#### 4. Problemas subyacentes

En el desarrollo de este apartado, seguiremos los tres aspectos relativos a las medidas de prevención, de detección y de reacción frente a las posibles actuaciones policiales irregulares:

1- Los mecanismos de prevención más eficaces son las convicciones y valores de los agentes y su autocontrol ante situaciones de tensión, así como el control ejercido por el grupo de los compañeros. Ninguno de esos mecanismos parece que funcionaron en el caso que nos ocupa o, cuando menos, ningún indicio de ello ha quedado reflejado en el atestado.

Otro instrumento de prevención puede consistir en el uso de "cámaras subjetivas de cuerpo" por parte de las dotaciones policiales intervinientes en actuaciones que requieran del empleo de la fuerza. Las pruebas piloto realizadas, tanto por el Departamento de Seguridad en los municipios de Bilbao, Irún y Vitoria-Gasteiz como por el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, parecen poner de manifiesto que el empleo generalizado de este medio técnico en las actuaciones dirigidas a la detención de personas en espacios públicos incrementa las garantías de objetividad en la acreditación de la actuación policial, y supone, así mismo, un medio eficaz de prevención respecto del pautas de comportamiento policial inadecuado.

2- Por lo que se refiere a las herramientas para detectar la comisión de posibles conductas irregulares, de la revisión del atestado elaborado a raíz de la detención que nos ocupa, hemos de concluir que la instrucción ha sido deficiente: Solo se toma declaración al Agente 1º y, a pesar de que éste afirma que se ha tenido que recurrir a la fuerza en la detención, no se le piden detalles, ni de la supuesta conducta agresiva de los detenidos (quién hizo qué, cuándo, dónde...), ni sobre la fuerza empleada para repelerla. No se especifica cuántos ni quiénes fueron los ertzainas que recurrieron a la fuerza, ni cuáles fueron -si los



egiaztatu, kontsultatu genuen atestatuan ez zegoelako horien argazkirik.

Atestatuak idazteko modu hori ez da eraginkorra kode deontologiko polizialaren aurkako jokabide edo jarduketa kolektiboak antzemateko.

3- Arduradun polizialen erantzuna jarduketa irregularraren zantzuen aurrean. Ertzaintzak barruko ikerketa bat hasteko betebeharra dauka, baldin eta diziiplina-falta izan daitekeen jarduketa polizial baten zantzuak badaude. Justizia Administrazioari ere berehala jakinarazi behar dio, baldin eta diziiplina-espeditzea instruitzea eragin duten egintzak delitu izan badaitezke. Dena den, prozedura penal bat egoteak ez du eragozten egintza berengatik kasuan kasuko diziiplina-espeditzea instruitzea, baina espeditze horren behin-betiko ebazpena ezin izango da eman, harik eta arlo penalean epai irmoa eman arte (EAEPL 138.5 art.).

Kasu honetan, Segurtasun Sailak, jarduketa judizialak eragin zituzten egintzen berri izan zuenean, kasuan kasuko diziiplina-prozedura ireki zuen eta berehala eten zuen. Egia esan, ez zen gertatutakoari buruzko benetako ikerketarik egin, ezta inplikaturik egon zitezkeen pertsonen buruz ere. Ondorioz, jarduketa judizialak amaitzen direnean ikerketa egitea beharrezkoa izango balitz, badirudi zaila izango dela ikerketa hori egitea, egintzak gertatu zirenetik denbora luzea igaro baita.

Aztergai daukagun jarduketan unitate polizialak izandako jokabidea argitzeko helburuarekin, barruan berehalako jarduketa egin ezenez, neurri zuzentzaileak zehaztea atzeratzen da eta zailagoa da neurri horiek eraginkorrak izatea.

## 5. Neurri zuzentzaileen proposamena

Aztertutako alderdiak eta aurreko ataletan egindako balorazioak kontuan hartuta, Batzorde

hubo- los resultados lesivos causados a los detenidos. No hemos podido comprobar este extremo, porque en el atestado que consultamos no había fotos de éstos.

Esta forma de redactar los atestados resulta ineficaz para la detección de actuaciones o patrones de conducta de carácter colectivo contrarios al código deontológico policial

3- Respuesta de los responsables policiales ante los indicios de actuación irregular. La Ertzaintza tiene obligación de iniciar una investigación interna cuando existan indicios de una actuación policial constitutiva de una falta disciplinaria. Debe, así mismo, dar inmediata cuenta a la Administración de Justicia si se considera que los hechos por los que se ha instruido expediente disciplinario pueden ser constitutivos de delito. Sin embargo, la existencia de un procedimiento penal no impide la instrucción por los mismos hechos del expediente disciplinario correspondiente, si bien la resolución definitiva de dicho expediente solo podrá producirse cuando haya sentencia firme en el ámbito penal (art. 138.5 LPPV).

En este caso, cuando el Departamento de Seguridad tuvo conocimiento de los hechos que habían dado lugar a las actuaciones judiciales, incoó el correspondiente procedimiento disciplinario, suspendiéndolo inmediatamente. En realidad, no se llevó a cabo una verdadera investigación sobre lo sucedido, ni sobre las personas que pudieron verse implicadas. En consecuencia, parece difícil que dicha investigación pueda realizarse, si fuese necesario, en el momento en que finalicen las actuaciones judiciales, dado el tiempo transcurrido desde los hechos.

La ausencia de una actuación inmediata interna dirigida al esclarecimiento del patrón de conducta seguido por la unidad policial en la actuación considerada, retrasa la definición de medidas correctoras y dificulta su eficacia.

## 5. Propuesta de medidas correctoras

A la vista de las cuestiones analizadas y las valoraciones realizadas en los apartados



honek, jarduketa polizialaren gaineko kontrolak hobetzeko, ildo hauek proposatu nahi ditu:

1. Kode deontologikoari eta praktika onei buruzko prestakuntza poliziala – hasierakoa eta etengabea- sendotzea, eta nabarmentzea autokontrolaren beharra esku-hartze polizialean inplikaturako pertsonen errespetu falten aurrean, baita jarduketa horietan gerta litezkeen tentsio-egoeren aurrean ere. Horrez gain, agenteengan konbikzio sendo hau sustatu behar da: lankideen artean ezinbestekoak diren konfiantzak eta leialtasunak ez dute jarduketa irregularrekiko konplizitatea edo jarduketa horiek ezkutatzea eragin behar.

2. Pertsonak leku publikoetan atxilotzeko protokoloak berrikustea, horietan jarduketa polizialaren gaineko kontrol objektiboak sartzeko, eta kontrol horiek derrigor bete beharrekoak izan daitezela atestatuan jasotzen diren jarduketetan.

3. Jarduketa polizialean, gorputzeko kamera subjektiboak modu orokorrean erabil daitezela lortzeko aurrerapausoak ematea; jarduketa polizial horien barruan pertsonak atxilotzeko jarduketak ere sartzeko, baita indarra erabili beharko dela aurreikusten den edo, aurreikusi gabe, gerora indarra erabili beharra gertatzen den jarduketetan ere.

4. Norberak zein taldeak egindako jarduketaren gaineko analisi kritikoa egiteko dinamikak sustatzea. Ertzaintzako kideek egindako ustezko abusu edo irregulartasunak salatzeak kanalak ematea eta ezkutatze-jokabideei jarraitzea (EAEPL 33 eta 138.3 art.).

5. Agintaritzaren agenteen aurkako ustezko atentatu- jarkitze- edo desobediencia-delituei buruzko atestatuak egiteko protokoloak hobetzea eta, bereziki, atxilotetan indarra erabili behar izan den kasuetarako. Horrelako jarduketetan funtzionario polizialak modu pertsonalean inplikaturako egoten direnez – biktimak eta lekukoak dira aldi berean- ezinbestekoa da egintzak deskribatzean objektibitatea sendotzea eta horregatik neurri espezifikoak hartu behar dira (esaterako, agente esku-hartzaileek deklarazio bakoitzak bere aldetik egitea).

antzerik, esta Comisión propone las siguientes líneas de mejora en los controles de la actividad policial:

1. Reforzar la formación policial -inicial y continua- sobre el código deontológico y buenas prácticas, insistiendo en la necesidad de autocontrol frente a las faltas de respeto por parte de las personas implicadas en la intervención policial, así como ante las situaciones de tensión que puedan producirse en dichas actuaciones. También hay que favorecer la firme convicción entre los agentes respecto a que la necesaria confianza y lealtad entre compañeros no debe conducir a la complicidad o el encubrimiento de las actuaciones irregulares.

2. Revisar los protocolos referidos a la práctica de la detención de personas en espacios públicos, a fin de incluir controles objetivos sobre la actuación policial para su obligatoria consignación en las actuaciones recogidas en el atestado.

3. Avanzar hacia el empleo generalizado de cámaras subjetivas de cuerpo en el desarrollo de actuaciones policiales, incluyendo las dirigidas a la detención de personas, así como aquellas en las que resulte previsible o sobrevenida la necesidad en el uso de la fuerza.

4. Promover dinámicas de análisis crítico sobre las actuaciones llevadas a cabo, tanto propias como de grupo. Facilitar canales de denuncia de aparentes abusos o irregularidades cometidas por miembros de la Ertzaintza y perseguir las conductas de encubrimiento (arts. 33 y 138.3 LPPV).

5. Mejorar los protocolos para la elaboración de los atestados por presuntos delitos de atentado, resistencia o desobediencia a los agentes de la autoridad y, en especial, para aquellos casos en los que se haya recurrido al uso de la fuerza en la detención. Puesto que en este tipo de actuaciones los funcionarios policiales se ven implicados personalmente -son víctimas a la vez que testigos- es preciso reforzar la objetividad en la descripción de los hechos, por lo que han de adoptarse medidas específicas (por ejemplo, la



6. Kode deontologiko polizialaren aurkako jarduketa izan delako zantzuak daudenean, barruko ikerketa ofizioz egin dela (aurretiazko informazioa edo diziiplina-espedita) egiaztatzea eta agintaritzaren judizialari ikerketa penala eragin dezaketen egintzen berri ematea. Egintza beraien gainean jarduketa judizialak eta diziplinazkoak daudenean, horiek amaitu beharko dira eta ikertzeko arrazoizko posibilitate guztiak agortu, baina ez da ebaizpenik hartuko epai irmoa ematen den arte.

7. Arartekoren 7/2011 Gomendio orokorrean jasotako gomendioak bete daitezela sustatzea, hauei buruzkoak: "Berme-sistema jarduketa eta praktika polizialean", bereziki, praktika polizialak berrikusteko mekanismoak ezartzeko beharrari buruzkoak; izan ere, esku artean daukagun kasu honek gabezia batzuk utzi ditu agerian.

declaración por separado de los agentes intervinientes).

6. Verificar la realización de oficio de una investigación interna (información previa o expediente disciplinario) cuando existan indicios de una actuación contraria al código deontológico policial, dando traslado a la autoridad judicial de los hechos susceptibles de investigación penal. En los supuestos de concurrencia de actuaciones judiciales y disciplinarias sobre los mismos hechos, habrá de completarse éstas hasta agotar todas las posibilidades razonables de investigación, si bien se pospondrá la adopción de cualquier resolución hasta que recaiga sentencia firme.

7. Promover el cumplimiento de las recomendaciones del Ararteko contenidas en su Recomendación general 7/2011, sobre "El sistema de garantías en las actuaciones y prácticas policiales", en particular, las referidas a la necesidad de establecer mecanismos de supervisión de las prácticas policiales, puesto que el caso que nos ocupa ha puesto de manifiesto algunas carencias.